



MILIKUANEKO PARRAPEIA



Aspalditxuan asko ezkutau baldin badira be, zeiñek eztitu ezagutu baserrixtako hormetan edo etxe-aurrian mahats-parrak? Berrogei urtetik gorako gehixenok, behintzat, akordauko zarieilla uste dot. Sasue batian txakoliña dezena egiten ei zan Oñati aldian. Gesaltzako Graziano Anduagak esaten ebenez, Arantzazu auzuan be bai.

Fotografixa horretan agiri dan mahats-parria be Arantzazu auzokua da; Milikuaneko ostattu aurrian XX. gizaldizaren hasieran-edo jarri eta gerra osterarte iraun ebena. Fotografixia 1924kua dala adierazten xaku barrenian; eta hor gaztetzua eta arbolia majo zabaldu ei zan azkenera orduko. Udako bero-sargorixan kerizpe ederra egongo zan parrapeian.

Aurrian agerketan diran sei gizakumietatik frailiak bakarrik identifikau dittugu: ezkerretik hirugarrenea Aita Jose Adrian Lizarralde (1884-1935), eta bosgarrena, barri, Aita Jose Martin Arrue (1884-1960). Bata nahiz bestia pertsonaje ospetsuak izan gittuan XX. mendieren lehenengo hamarkadetan euskal kulturan sailian. Iñork ezaguketan dittu beste lau jaun dotoriek?

J. A. Lizarralde zaldibiarra historia-alorrian nabarmendu zuen eta oficiarrontzat interes haundiko lanak idatziz zituen: *Historia de la Universidad de Oñate* (1930) eta *Historia de Arantzazu* (1950) bestiak beste; Oñatioko herrixak kale baten izena eskaini otzan Etxaluze-Bidaurreta inguruetañan. J. M. Arrue aretxabaletarra musikua, idazlia eta beste gauza asko izan zan; bere lan ugarien artian bat aittatuko dogu: peregrinaziñuetako himno ofizial bihurtu dan *Gure herrietatik gatoz gaur Arantzazura* izeneko.

J.E.

Fotografixia Aita Pello Zabalak itxittakua da eta argibidiak
Pello berak eta Anjel Mari Milikuak eskuratu daskoek.

**Orain Oñatin ING DIRECT kontratatu zenezake
%**4 interesean (T.A.E.) lehenengo pezetatik epe gabe
eta nahi duzunean eramateko aukerarekin.
Kontratatzean opari bat egingo dizuegu

Foruen enparantza, 5-6
Tfnoa: 943 71 67 66 • Faxa 943 71 67 67

Rafael
Kortabarria